

**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## **HAURTZAINDEGIA 0-3 URTE**



**94 673 29 50**

[zornotza@ikastola.eus](mailto:zornotza@ikastola.eus) · [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)



Ume guztien ongizate psikiko eta fisikoa zaintzearekin batera, ekitatean oinarritutako hezkuntza sustatu nahi dugu. Umeak, txiki txikitatik ere, gaitasun ugari ditu, bakoitzak bere berezitasunekin. Gure ikuspuntutik, umea da bere garapenaren protagonista, osasuntsu garatzeko gaitasuna baitu, bere erritmoan eta esperimintatzeko berezko grinatik abiatuta.

Ikastolan garapen horretarako esparru aberatsa eta segurua eskaintzea da gure asmoa. Horrez gain, umearen senak (nahiak, gogoak, desirak, emozioak, beharrak) pizten direnean transmititzen dituzten seinaleak interpretatzea eta behar horiei erantzun egokia ematea da gure nahia.

Horretarako guztirako garrantzitsua da umea lasai, gustura eta pozik etortzea ikastolara. Eta, hori lortzeko, umeak atxikimendu segurua lortu behar du hezitzailearekin, etxekotze egoki baten bidez. Etxekote prozesu horretan gurasoen parte hartzea garrantzitsua izango da, umearen ongizate integrala bermatzekotan, beharrezkoa baita familiari konfiantzazko gunea eskaintzea.

Gelako dinamikaren inguruan, jolasa izango da gure lan-dinamikaren oinarria. Azken finean, jolasa umearen jarduera naturala da: esperientzia berriak, manipulaziorako aukera, sentimenduak azaltzeko bideak... Horretaz gain, esparru guztietan umearen autonomia bultzatzea izango da gure beste helburu nagusi bat. Horrek euren garapen prozesuan laguntzeaz gain, umeen nortasuna osatzen ere lagunduko die.

Nuestro objetivo es doble: por un lado, velar por el bienestar psíquico y físico de todos los niños, y por otro lado fomentar una educación basada en el principio de la equidad. Todos los niños tienen muchas capacidades desde la más temprana infancia, cada uno con sus características propias. Desde nuestro punto de vista, el niño debe ser el protagonista de su desarrollo, puesto que ya dispone de la capacidad de desarrollarse saludablemente según su propio ritmo y sus propensiones. Nuestra intención es ofrecer en la ikastola un contexto rico y seguro donde desarrollar ese potencial.

Además, por medio de la observación constante, queremos interpretar las señales que transmiten cuando se despierta su carácter (los deseos, ansias, emociones, necesidades) para poderles dar una respuesta adecuada.

Para ello es muy importante que el niño se sienta a gusto y que venga contento a la ikastola. Y, para lograrlo, el niño debe lograr un apego seguro con su educador, mediante un proceso de adaptación adecuado. En ese proceso es importante la participación de los familiares, puesto que si pretendemos desarrollar un bienestar integral del niño, resultará fundamental ofrecer a la familia un espacio de seguridad.

El juego es la base de la dinámica de la clase. Al fin y al cabo, el juego es una actividad innata en el niño: nuevas experiencias, manipular nuevos objetos, nuevas formas de expresar sus sentimientos... Otro de nuestros grandes objetivos es fomentar la autonomía los niños. pues además de ayudarles en su propio proceso de desarrollo, también les ayudará a conformar su personalidad.





## Ikastolako Ordutegi Orokorra / Horario General

<b>IDAZKARITZA</b>	09:00-14:30 / 15:30-17:00	
	<b>ZABALDU</b> Apertura	<b>ITXI</b> Cierre
<b>ERAIKINEKO ATEAK</b> / Puertas de la Ikastola	08:45	17:30
<b>KANPOKO HESIAK</b> / Verjas exteriores	08:30	18:00

Istripuak eta ezbeharrak, material galerak edo instalazioetan gertatzen diren narriadurak saihesteko, eta bide batez Ikastola garbitzen duten langileen lana errazteko, **ikasleok eta gurasook ezin izango gara ikastola barruan ibili 16:30etik aurrera** (eskolaz kanpoko eta Meriendagune erabiltzaileak behar dituzten gelak baino ez dira erabiliko).

Con el fin de prevenir accidentes y daños en las instalaciones, y para que el personal de limpieza pueda hacer su trabajo, **a partir de las 16.30 horas no se puede permanecer en el interior de la ikastola** (salvo los usuarios de los "Meriendagune" y de las actividades extraescolares, en los espacios necesarios para las mismas.)

## Haur Hezkuntzako (0-3 urte) ordutegia / Horario de Educación Infantil (de 0-3 años)

<b>ZABALDU</b> Apertura	<b>ITXI</b> Cierre	<b>ZAINTZA</b>
07:30	17:00	19:00(*)

(\*) Zaintza zerbitzua eskainiko da 5 ume baino gehiago egonez gero

Umearen eta senideen ongizatearen alde, gure ordutegia malgua da, baina umeek ikastolan **ezin dute eman 8 ordu baino gehiago**. Halaber, kontuan izan umearentzat komenigarria dela ordutegia berdintsua izatea.

(\*) Se ofrecerá servicio de cuidado en caso de haber más de 5 niños-as

Para el bienestar de los niños/as y sus familiares, disponemos de un horario flexible, pero los niños/as **no podrán permanecer más de 8 horas** en la ikastola.

Así mismo, es conveniente que mantengan el mismo horario.

## 0 urte- ordutegiaren antolakuntza / Organización del horario – 0 años

Umearen erritmoa errespetatuko da: loa, jana, etab. Ume bakoitzaren arabera izango da, ez da gela barruko ordutegi zehatzik egongo.

Se respetará el ritmo del niño/niña: horas de sueño, hora de comer etc. El horario dependerá de cada niño/niña, no habrá horario fijo dentro de la clase.

## 1 eta 2 urte-ordutegiaren antolakuntza / Organización del horario 1 y 2 años

Urte 1: sarreraren ordutegia librea izango da / 1 AÑO: El horario de entrada será libre.

2 urte: sarrera 10:00ak baino lehenago egitea gomendatzen da / 2 AÑOS: La entrada se recomienda antes de las 10:00 h

Urte 1ekoak 11:45 ean jantokira joango dira./ 1 AÑO: Irán a comer a las 11:45

Urte 2koak 12:00etan jantokira joango dira / 2 AÑOS : Irán a comer a las 12:00



## Urtebetetzeak / Cumpleaños

Urte 1 eta urte 2ko umeen gelan, urtebetetzeak ospatzeko honako hauek ekarri daitezke: pastela edo bizkotxoa (kandela jartzeko); gailetak, zukua, puxikak.

### **EZIN DA "LITXARRERARIK" EKARRI**

#### **NO SE TRAERÁN CHUCHERÍAS**

(patatak, gusanitoak, etab EZ; ikastolan ez da "txutxe" paketerik banatuko

(Nada de gusanitos, etc.; En la ikastola no se repartirán paquetes de chuches).

En la clase de los/las niños/as 1 año y de 2 años, para celebrar los cumpleaños se pueden traer: Pastel o bizcocho (para poner la vela); Galletas, zumo; Globos;

## Arropa, materiala

Arropa guztia izenarekin ekarri behar da. Umea arropa erosoarekin etorriko da gelara

### **BOTOIRIK , PETORIK, TIRANTERIK eta GERRIKORIK EZ**

Egunean babero bat erabiliko da eta egunero etxera garbitzera eramango da.

Ikastolan uzteko materiala:

- Bodia, kamiseta, prakak, galtzerdiak eta zapatak.
- Pardelak, toailitak eta krema (amaitzen direnean eskatzen dira gehiago).
- Eskupainua.
- Txupetea.

**0 urtekoentzat:** sehaskako izarak eta mantak ikastolak ipini eta garbituko ditu.

**Urte 1 eta urte 2koentzat,** horrez gain, beste hau guztia:

- Edalontzi bat.
- Familiaren argazki-albuma.
- NAN tamainako bi argazki.
- Amantala erabiliko dute (asteazken eta ostiraletan etxera garbitzera).
- Loaldirako izara, manta eta eskupainu txiki bat ekarriko dute (ostiraletan etxera garbitzera)

Toda la ropa deberá traer el nombre escrito. El niño vendrá a clase con ropa cómoda:

### **NO BOTONES, PETOS, TIRANTES, NI CINTURONES.**

Se utilizará un babero cada día y diariamente se llevará a casa a limpiar.

Material para dejar en la ikastola:

- Bodi, camiseta, pantalones, calcetines y zapatos.
- Pañales, toallitas y crema (se pedirán más cuando se acaben).
- Toalla.
- Chupete.

**Para los/las de 0 años** la ikastola pondrá y limpiará las sábanas y mantas de las cunas

**Para los/las de 1 y 2 años,** además de todo lo anterior, traerán:

- Un vaso.
- Un álbum familiar de fotografías.
- 2 fotografías de carné.
- Utilizarán bata (los miércoles y viernes la llevarán a casa a limpiar).
- Para la siesta traerán una sábana, manta y una toalla pequeña (los viernes las llevarán a casa a limpiar).



## Tutoreak / Tutores

<b>Etapako arduraduna</b>	Itxaso Amunategi
<b>HH 0 urte</b>	Eider Ingunza
<b>HH 1 urte A</b>	Pili Ramirez
<b>HH 1 urte B</b>	Zorione Bengoa
<b>HH 1 urte C</b>	Eneritz Odiaga
<b>HH 2 urte A</b>	Maidier Ortega
<b>HH 2 urte B</b>	Irati Atxa
<b>HH 2 urte C</b>	Mari Jose Ojanguren

**Gurasoekin eguneroko harremana dago** (egunero dago hezitzailearekin hitz egiteko aukera) horrez gain haurtzaindegi osoan agenda bat erabiltzen da etxean eta ikastolan egiten dutena islatzeko. Edozein momentutan guraso batek bakarkako bilera egin nahi badu, tutorearekin hitz egin eta biei komeni zaien ordu bat jarriko dute.

**HH2ko** umeen gelan: Tutoretza bilera egingo da ziklo bukaeran. Idatzizko txostenak barnekoak dira, etxera ez da ezer idatziz bidaliko.

**La relación con los padres/madres es diaria** (tienen ocasión de hablar con la educadora cualquier día) además se utiliza una agenda donde se refleja lo que los niños hacen tanto en la ikastola como en casa. Si algún padre/madre necesita una reunión individual deberá hablar con la tutora y decidir una hora adecuada para ambos.

En la clase de niños/as de **2 años**: Se realizará reunión de tutoría al finalizar el ciclo. Los informes escritos son internos, no se enviará a casa nada por escrito.

## ALBISTEAK / NOTICIAS



Gure web orrian eta facebookean aurkituko dituzu gure ikastolari buruzko informazioa, albisteak, ekintzak, zerbitzuak,... Horrez gain, Alexia plataforma erabiltzen dugu gestio akademiko, ekonomiko zein komunikazioarako.

Toda la información, noticias, actividades, servicios,..etc, de nuestra ikastola la encontrarás en en nuestra pagina web y en nuestro facebook. Además, utilizamos la plataforma Alexia para la gestión académica, económica y la comunicación con los padres y madres.



[www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)



Andramari Zornotzako Ikastola

Alexia



## EKINTZA OSAGARRIAK / ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

Gure ohiturei eusteko, gure kultura sustatzeko:

Para promover nuestra cultura y mantener nuestras costumbres:

### ABENDUAN

Euskararen Eguna – Olentzero eta Mari Domingi – Gabonetako Azoka

### URTARRILA / OTSAILEAN

Eguen Zuri – Agate Deuna – Inauteriak

### MAIATZA / EKAINEAN

Bizkargi Eguna – Ikastolako Jaia

### OHARRA:

1 eta 2 Urtekoak

- OLENTZERO /MARI DOMINGI\* ikastolara datozen egunean, umeak baserritarrez jantzita ekartzea eskertuko da; ez ekarri gerrikorik, txapelik eta abarkarik.
- INAUTERIETAN hezitzaileek egindako mozorroa jantziko dute.

1 y 2 Años

- El día que OLENTZERO/MARI DOMINGI vienen a la ikastola, se agradecerá que los/las niños/as vistan de baserritarras. no traer gerriko, txapela, ni abarkas.
- En CARNAVALES vestirán los trajes confeccionados por las educadoras.

## Irteerak / Salidas escolares

### 2 urteko gelan

URTEAN ZEHAR/ a lo largo del curso:

gelako gaiekin lotutako irteera desberdinak ikastola ingurura. / Distintas excursiones al entorno.

# ELKARBIZITZARAKO ARAUAK IKASTOLAN / NORMAS CONVIVENCIA EN LA IKASTOLA



## Aparkatzea / Aparcamiento

Ikastola barruko aparkalekua **hautzaindegira doazen autoek baino ezin dute erabili** eta GELDIALDI LABURRAK egiteko baino ez, hau da, BERTAN UMEAK UTZI ETA BATZEKO.

Ikastolako autobusaren maniobrak erraztearren eta egon daitekeen arriskua saihestearren, **ezin izango da parkinga erabili ondoren adierazten den ordutegian:**

El aparcamiento del interior de la ikastola es para **uso exclusivo** de los vehículos que necesitan acceder a la guardería y SÓLO PUEDEN REALIZARSE PARADAS PARA "CARGA Y DESCARGA". Debido al peligro que suponen las maniobras del autobús, para evitar riesgos y facilitar las maniobras del autobús escolar, **no se puede acceder al aparcamiento en el siguiente horario:**



### EZ ERABILI / NO ACCEDER

08:30 - 09:05

16:20 - 16:40




## Meriendaguneak / Áreas para merienda

Eraikin barruko MERIENDAGUNEAK ETA ONDOKO KOMUNAK **16:30etik 17:30era** bakarrik erabil daitezke. Kanpoko patioak: **16:30etik 18:00etara.**

Ikastolako partaide garen guztion eskubideak bermatzeko: meriendaguneetako zakarrontziak erabili, lorategietan ez egin txizarik, ez erabili bizikletarik, patinik etb; ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN DIHARDUTENEN ESPAZIOAK ETA LANA ERRESPECTATU.

De **16:30-17:30**, dentro del edificio sólo se puede permanecer en las ÁREAS DE MERIENDA Y EN LOS WC QUE ESTÁN AL LADO. En los patios de fuera: de **16:30-18:00**.

Para garantizar los derechos de tod@s los miembros de la ikastola: se deben utilizar las basuras, no se debe andar en bici, patines, etc; se debe RESPETAR EL ESPACIO Y EL TRABAJO DE LOS PARTICIPANTES EN ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES.





## GAIXOTASUNAK / ENFERMEDADES

Ikasleen artean gaixotasunik ez kutsatzeko, gaixotasun-fasearen ondoko 2-3 egunetan umea ikastolara ez bidaltzea komeni da. Para evitar contagios, se recomienda no traer l@s niñ@s a la ikastola 2-3 días después de la fase de enfermedad.

Ikastolan ez da botikarik emango. Premia bereziren bat izanez gero, tutoreekin komentatu.

En la ikastola no se administran medicamentos. En caso de existir alguna necesidad especial, comentadlo con l@s tutores.



## ISTRIPUAK / ACCIDENTES

### Eskola orduetan / En horario escolar

<b>TXIKIA</b> LEVE	Kontu txikia bada, kolpea / zauria osatu eta jarraipena egingo diegu. <i>Se curará la herida y se le hará seguimiento.</i>
<b>ARINA</b> GRAVEDAD MEDIA	Istripu arina bada, gurasoei deituko diegu, osasun-zentrora(*) joatea komeni den erabaki dezaten. <i>Se avisará a la familia para que valoren la visita al centro médico(*)</i>
<b>LARRIA</b> GRAVE	Istripu larria bada, berehala deituko diegu gurasoei, ikaslea osasun-zentrora(*) eraman dezaten. <i>Se llamará de inmediato a la familia para que trasladen el alumno a un centro médico (*)</i>
<b>OSO LARRIA</b> MUY GRAVE	Oso istripu larria bada, anbulantziari deitu eta, berehala, gurasoen berri emango diegu. <i>Se llamará a la ambulancia y la familia.</i>

(\*) Pribatua den osasun-zentrora joan nahi izanez gero, hauek dira

(\*) En caso de querer acudir a un centro- médicos privado, estos son

#### IKASTOLAKO ASEGURUAN sartuta dauden osasun-zentroak

Centros médicos incluidos en el SEGURO DE LA IKASTOLA:

Behar izana	Klinika	Helbidea
Orotariko gorabeherak	GANE	Gane auzoa Zornotza
Pediatria	IMQ ZORROTZAURRE	Ballets Olaeta 4, Bilbo
	QUIRON BIZKAIA	Leioa-Unbe errepidea 33bis, Erandio
Traumatologia	GUIMON	Manuel Allende 24, Bilbo
	VIRGEN BLANCA	Maestro Mendiri 2, Bilbo
	QUIRON BIZKAIA	Leioa-Unbe errepidea 33bis, Erandio



## Eskola ordutegitik kanpo / Fuera del horario escolar

<b>IKASTOLAN Jolasean</b>	<p>Gure aseguruak hartzen duen osasun-zentroren batera (*) joanez gero.</p> <p><i>En caso de acudir a un centro médico (*) que cubre nuestro seguro.</i></p>	<p>Osasun-zentrora joan ondoren, ikastolari jakinarazi, berak partea tramitatu dezan.</p> <p><i>Se deberá notificar la asistencia al centro médico para que la ikastola tramite el parte.</i></p>
	<p>Osasun-zentro publikoren batera joanez gero.</p> <p><i>En caso de acudir a un centro médico de la Seguridad Social.</i></p>	<p>Kontuan izateko: istripua gure ikastola barruan gertatu dela <u>esanez</u> gero, osasun-zentroak familiari zerbitzua kobratuko dio, nahiz eta osasun-zentro publikoa izan. Eraman Osakidetzaren txartela.</p> <p><i>A tener en cuenta: Si se <u>declara</u> que el accidente ha tenido lugar dentro de la ikastola, el centro médico cobrará a la familia el servicio recibido, aunque sea la sanidad pública.</i></p>
<b>Kirolak praktikatzean: IKASTOLAN zein IKASTOLATIK KANPO praktikatzen ari diren kirolean FEDERATU GABE dauden umeak (txikien multikirola,.. )</b>	<p>Gure aseguruak hartzen duen osasun-zentroren batera (*) joanez gero.</p> <p><i>En caso de acudir a un centro médico (*) que cubre nuestro seguro.</i></p>	<p>Osasun-zentrora joan ondoren, ikastolari jakinarazi, berak partea tramitatu dezan.</p> <p><i>Se deberá notificar la asistencia al centro médico para que la ikastola tramite el parte.</i></p>
	<p>Osasun-zentro publikoren batera joanez gero.</p> <p><i>En caso de acudir a un centro médico de la Seguridad Social.</i></p>	<p>Eraman Osakidetzaren txartela.</p> <p>Kontuan izateko: istripua ikastola barruan gertatu dela <u>esanez</u> gero, osasun-zentroak familiari zerbitzua kobratuko dio, nahiz eta osasun-zentro publikoa izan.</p> <p><i>A tener en cuenta: Si se <u>declara</u> que el accidente ha tenido lugar dentro de la ikastola, el centro médico cobrará a la familia el servicio recibido, aunque sea la sanidad pública.</i></p>
<b>Kirolak praktikatzean: IKASTOLAN zein IKASTOLATIK KANPO praktikatzen ari diren kirolean FEDERATUTA dauden umeak (saskibaloia, futbola, eskupilota)</b>	<p>Osasun-zentro publikora jo behar da.</p> <p><i>En caso de acudir a un centro médico (*) que cubre nuestro seguro.</i></p>	<p>Eraman Osakidetzaren txartela. (Osasun publikoak bere gain hartzen ditu kirol FEDERATUAK)</p> <p><i>Llevar la tarjeta de Osakidetza. (Los deportes FEDERADOS los cubre la Seguridad Social)</i></p>



## JANTOKIA / COMEDOR

Aurtengo Ikasturtean ere **Mahi-Mahi** proiektuarekin jarraitzen dugu.

Mahi-Mahi ez da ohiko eskola-jangela, gune paregabea bilakatu dadin lan egiteko modu baina.

Haurrek, modu osasuntsuan jateaz gain, esperientzia dibertigarria eta hezigarria biziko dute horrela.

Aurten, produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikoak gehitu ditugu gure menuetan, betiere ikasleen elikadura osasungarria bermatu, ingurumena zaindu, galtzear dagoen gure baserriko bizitzarekiko apustua egin eta, aldi berean, herriko ekonomia sustatzeko asmoarekin.


Menuak [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus) ikusgai

Este curso seguimos adelante con el proyecto **Mahi-Mahi**.

Mahi-Mahi no es el típico comedor escolar, es una manera de hacer para conseguir que el comedor se convierta en un espacio sin igual, donde los niños y niñas, además de comer de manera saludable, viven una experiencia divertida y enriquecedora.

Este año, con el objetivo de asegurar una nutrición adecuada para el correcto crecimiento y desarrollo de los alumnos, hemos incorporado en el menú productos ecológicos, locales y de temporada. Asimismo, contribuimos en favorecer la economía local, cuidar el medio ambiente y apostamos por mantener nuestros caseríos)

Para ver los menús: [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)



## GARRAIOA / TRANSPORTE

Ibilbideak, ordutegiak, etab: [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)

Erabiltzaileak aldaketak, aldaketak egin nahi izanez gero (geltoki aldaketa, egunak, etab) IDAZKARITZAN jakinarazi behar du.


Gurasoek autobusa heldu baino lehenago egon behar dute geltokian; autobusa heltzean gurasorik ez badago: **umea ez da jaitsiko** eta ikastolara bueltatuko da.

### **Derrigorrezkoa da GERRIKOA erabiltzea** **EL CINTURÓN es de uso OBLIGATORIO**

Trayectos, horarios, etc: [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)

Los cambios que los usuarios quieran hacer (cambio parada, días de uso, etc) deberán ser notificados EN SECRETARÍA. Los padres/madres deberán estar en la parada antes de la llegada del bus; si a la llegada del mismo no hay ningún responsable a la espera: el niño/a no se bajará del autobús y retornará de nuevo a la Ikastola.





## GARRAIOA / TRANSPORTE

### 2019 -20 BUS ORDUTEGIA eta GERALEKUAK

GOIZEKO ORDUTEGIA	Goizeko geralekua	Arratsaldeko geralekua	ARRATSALDEKO ORDUTEGIA	ARRATSALDEZ JARDUN TRINKOAN
7:55	Usansolo	Eskolak	16:40	14:50
8:00	Bedia	Gane	16:43	14:53
8:07	Lemoa	Merkatua	16:45	14:55
8:18	Igorre	Ogenbarrena	16:48	14:58
8:30	Ogenbarrena	Igorre	17:05	15:15
8:33	Merkatua	Lemoa	17:09	15:20
8:34	Gane	Bedia	17:14	15:23
8:38	Eskolak	Usansolo	17:18	15:27



## ESKOLAZ KANPOKOAK / EXTRAESCOLARES

Gurean, ikasleen prestakuntza integrala osatzea da eskolaz kanpoko ekintzen helburu nagusia; horretarako, banakako zein taldeko jarduerak eskaintzen dira: fisikoak, buru-jarduerak eta sortze-jarduerak. Horrez gain, ikasleen harremanak indartzeko ere balio dute.

1	MARRAZKETA	<b>ARTISTIKOAK</b>
2	ANTZERKIA	
3	EUSKAL DANTZAK	
4	MUSIKA	
5	GITARRA	
6	TRIKITIXA/PANDEROA	
7	DANTZA GARAIKIDEAK	

8	PSIKOMOTRIZITATEA	<b>EMOZIOAK</b>
9	ADIMEN EMOZIONALA	

10	ESKUPILOTA (LAGUN ONAK)	<b>KIROLETAKOAK</b>
11	ESKUPILOTA (ERDU PILOTAN)	
12	JOLAS KOOPERATIBOAK	
13	MULTIKIROLA (HEZIKI)	
14	SASKIBALOA	
15	FUTBOLA	



16	ROBOTIKA	<b>ZIENTZIETAKOAK</b>
----	----------	-----------------------

17	INGELESA	<b>HIZKUNTZAK</b>
----	----------	-------------------

# GURASOEN BETEBEHARRAK HAURTZAINDEGIAN / LOS DEBERES DE LOS PADRES/MADRES EN GUARDERIA



Kooperatibistak garen heinean, bazkideen ASANBLADETAN PARTE HARTZEA

Participar en las ASAMBLEAS como socios que somos

ELKARLANEAN arituz, seme-alaben EREDU izatea

Ser EJEMPLO de nuestros hijos/hijas TRABAJANDO EN COMÚN

## 2 urteko umeen gelako GURASOEK

1) IKASTOLAKO JAIALDIAREN antolakuntzan parte hartzea dagokie (ekainean)

Participar en la organización de LA FIESTA DE LA IKASTOLA (en junio).

## 0 eta urte 1eko umeen gelako GURASOEK:

2) Zornotzako Jaietako IKASTOLAKO TXOSNAN, santanatxu eguneko txandan lan egitea dagokie (uztailaren 27an).

En fiestas de Zornotza: trabajar en la TXOSNA DE LA IKASTOLA, en el turno del día de Santanatxu (27 de julio).

**Gure IKASLEAK,  
euskaldunak eta euskaltzaleak,  
solidarioak, langileak, ekintzaileak...  
...eta batez ere...  
ZORIONTSUAK izan daitezcan lanean.**



## 2019-20 IKASTURTEA

### HAURTZAINDEGIA

IRAILA							URRIA							AZAROA							ABENDUA											
Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig					
						1		1	2	3	4	5	6					1	2	3							1					
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8					
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15					
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22					
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29					
30																										30	31					

URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA							APIRILA						
Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig
		1	2	3	4	5						1	2							1			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29		23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30			
														30	31												

MAIATZA							EKAINA							UZTAILA						
Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig	Al	Aa	Az	Os	Ot	La	Ig
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26
25	26	27	28	29	30	31	29	30						27	28	29	30	31		

HASIERA	BUKAERA
2019/09/02	2020/07/21
JAI EGUNAK OPORRALDIAK	
Azaroak 1	Domu Santu Eguna
Azaroa 29	Irakaslearen Eguna
Abenduak 6	Konstituzio Eguna
Abe 24 - 25	Gabonak
Abe 31 - Urt 1	Urteberria
Urtarrilak 6	Errege Eguna
Martx 19 - 20	San Jose Eguna (Zubia)
Api 9 - 13	Aste Santua
Maiatzak 1	Langileen Eguna
Uztailak 16	Karmen Eguna
JAIALDIAK	
Abenduak 14	Gabonetako Azoka
Ekainak 13	Ikastolako Jaialdia
JARDUN TRINKOA	
Uztailak 21	07:30 - 13:30



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA